

euskararen berripapera



188

Aro berriak, asmo eraberrituak

Komunikazioaren legeen arabera, oreka eta elkarrekiko egokitasuna dira euskarriaren eta mamiaren arteko lokarririk sendoenak. Bestela esanda: mezutik itxurarako joan-etorriko bidaian, asmoa zubi.

Eta hori da, irakurle, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Euskararen Berripapera* eraberritu honen bidez zure eskuetara helarazi nahi duena: beste ezeren gainetik informazio iturburu egokia izan nahi duen hedabide bat.

Euskararen erabilera normaltzeko eginahal etengabea kezkin bestekoa du euskalgintzan ari garen arteko komunikazio eroso, eraginkorra eta zehatza. Are gehiago albiste herri erakunde lanari buruzkoa denean. Horixe baita instituzioen betebeharrak garbientariko bat: egiten dutenez eta egiten dutenaren arrazoiez berri zehatza garaiz ematea.

Ez dago-eta beste biderik elkarren ezagutzarako, kritika eta eztabaida leialetarako, gogo beteko lankidetzarako.

Ukan saria Euskadiko Kutxa eta Gipuzkoa Donostia Kutxari

Esparru sozio-ekonomikoa izan zen protagonista Euskararen Nazioarteko Egunean eta euskararen normalizazioan aurrezki-kutxek egindako ahalegina saritu zen.



Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Miren Azkarate Kultura sailburua eta Patxi Baztarrika HPSko burua Ukan birusarekin.

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu zuen Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Artium museoan. Ehunka lagun bildu zituen ekitaldian dantzariak, musikariak, bertsolariak eta umorea izan ziren nagusi. Alabaina, ospakizunaz gain, Ukan sariaren banaketa egin zen. Ukan saria banatu zen bigarren urtean, esparru sozio-ekonomikoa euskalduntzeko gizarte osoa egiten ari den ahalegina nabarmendu zen. Horrela, Ukan saria Euskadiko Kutxak zein Gipuzkoa Donostia Kutxak jaso zuten 1970eko hamarkadatik euskararen alorrean emandako urratsengatik. Ukan sariaz gain merezimenduzko aipamena egin zuten. Aipamen hau duela hamasei urte hasitako proiektu bati eman zion Eusko Jaurlaritzak. 1991. urtean Elhuyar Kultur Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek hitzarmena sinatu zuten eta 1992 eta 1997. urteen artean industria arloan euskara txertatzeko egindako lehenengo proiektu pilotua abian jarri zuten. Merezimenduzko saria jaso zuten Elhuyar Kultur Elkarteak eta garai hartan parte hartu zuten erakundeetako arduradunek.

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek, bere hitzaldian, gogorarazi zuen 25 urte egin dituela Euskararen Legeak, lanabes juridiko ederrak, eta gaineratu zuen ea adorea izango ote dugun lege hori ekintza bihurtzeko. Erantzun bakarra baiezkoa dela azpimarratu zuen Ibarretxe lehendakariak.

Bestalde, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Eusko Jaurlaritzaren izenean Euskararen Nazioarteko Egunerako emandako mezuak bi oinarri izan zituen: batetik, elkarbizitzaren oinarria eta bestetik, hizkuntza-aniztasunaren oinarria. Baztarrikak adierazitakoaren arabera, «ez dago hizkuntza txikirik. Ez dago hizkuntza bat bestea baino txikiagorik, perfektuagorik, zailagorik, ederragorik. Egon, hizkuntza hegemonikoak eta hizkuntza ez hegemonikoak daude. Testuinguru historikoak, soilik agente eta botere kontuekin zerikusia duten arrazoiek egin dituzte hizkuntza batzuk hegemoniko eta besteak ez hegemoniko edo menpeko, ez hizkuntzaren berezko izaera edo balioak».

Mikel Irizar, Gipuzkoa Donostia Kutxako hizkuntza- -plangintzarako arduraduna

Ukan saria jaso duzue.

Pozgarria da saria jasotzea, dudarik gabe. Egindako bidea aitortu digute. Kutxak ibilbide luzea egin du elebitasunaren alde eta sari honek euskalduntzeari bultzada berria emateko puntuari harrapatu gaitu.

Zergatik diozu bultzada berria emateko puntuari zaudetela?

Batetik, jauzi nagusia elebitasunetik eleaniztasunera igarotzea da. Gipuzkoa Donostia Kutxak katalanez, galegoz, frantsesez eta ingelesez egiten du lan, besteak beste. Beraz, egoera berri honetara egokitu behar dugu, hizkuntza-plangintza gaurkotu egin behar dugu. Egoera berri hau mesedegarria da euskararentzat, egoera diglosikoan, gaztelaniaren aurrean euskara da galtzaile eta egoera eleaniztean berriz, gaztelania hizkuntza bat gehiago da. Bestetik, gure egitekoa bezeroari kalitatezko arreta eskaintzea da eta bezeroak ditugu Katalunian, Galizian... Bezero zorrotzak dira hizkuntzei dagokienez, espero baitute garen tokikoak garelako hizkuntza kontuetan sentsibilitate berezia izango dugula. Bezero horiek guretzat akuilu dira.

Garai garrantzitsua bizi duzue beraz.

Une garrantzitsua da guretzat arrazoi batzuegatik: barne bilakaeran ari gara orain, kanpora hedatzen ere bai, eta bestalde, *LanHitz* programa jarri da abian. Orain dela urte batzuk arte kolpeka ari ginen lanean euskalduntzeari dagokionean eta orain, berriz, txanpa ona dator. Egoerak Kutxa etxeko lanak eginda harrapatu du eta olatua harrapatzeko moduan gaude.



Xabier Alkorta Gipuzkoa Donostia Kutxako zuzendariak eta Juan Mari Otaegi Euskadiko Kutxako lehendakariak jaso zuten Ukan saria.

Xabier Bosch, Euskadiko Kutxako Euskara Zerbitzua

Ukan saria jaso duzue.

Lanean hasi ginenetik euskararen normalizazioan lortutakoagatik egindako errekonozimendua da. 1960ko urteetan hasi ginen lehen urratsak ematen, esate baterako, iragarkiak euskaraz egiten.

Epe laburreko erronkak zein dira?

Batetik, 2008an bezeroei zuzendutako kanpaina egingo dugu, Kutxarekiko harremanetan, eta kutxazainetan ere bai, euskara erabil dezaten.

Bestetik, urtero egiten dugu sukurtsaletako langileentzako prestakuntza-plana eta aurten ere halaxe egingo dugu.

Eta epe luzerakoak?

Batetik, bezeroarekin mota guztietako harremanak euskaraz izatea lortu nahi dugu. Bestetik, etxe barruan ere euskalduntze prozesua garatu nahi dugu; bezeroekin harreman zuzena duten langileekin eta baita bezeroekin harremanik ez eta barruko lana egiten duten langileekin ere.



Bikain, Euskararen Kalitate Ziurtagiri publiko, ofizial eta doakoa abian da

Instituzioetako eta enpresa-erakundeetako ordezkariak *Bikain* ziurtagiriaren aurkezpenearan.

Abenduaren 17an aurkeztu zen *Bikain*, enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatu eta egiaztatuko duen Ziurtagiria. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde publiko zein pribatuek ziurtagiri hau lortu ahal izango dute euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatzen baldin badute. Enpresek eta erakundeek Eusko Jaurlaritzak helburu horretarako doan eskainiko duen ebaluazio-zerbitzua eska dezakete.

Hiru egiaztapen maila zehaztu dira, euskararen presentziari, erabilerei eta kudeaketari dagokienez erakundeek egiaztatutako mailaren arabera: oinarrizko mailako ziurtagiria, erdi-mailako ziurtagiria eta goi-mailako ziurtagiria. Arterakitzatza Kontseiluak eta Kudeaketa Batzorde Eragileak kudeatuko dute Euskararen Kalitate Ziurtagiria.

Hirueletasuna eskolan: ingelesaren lekua euskal hezkuntza sisteman

David Lasagabasterrek ingelesaren irakaskuntza goiztiarrak EAEko hezkuntza sisteman izan dezakeen eragina aztertu du. Artikuluan hiru galdera nagusi landu ditu:

- Atzerriko hizkuntzaren ikasketa goiztiarrak euskararen eta gaztelaniaren gaitasunari nola eragiten dio?
- Ikasketa goiztiar horrek hizkuntza minorizatuari buruzko jarrerari nola eragiten die?
- Ingelesaren gaitasuna hobetzen lagunduko ote du?


Lasagabasterrek ondorioztatu duenez, hirueletasun goiztiarrak ez du inolako ondorio kaltegarririk, ez garapen kognitibo normalean, ez euskararen eta gaztelaniaren gaitasunean.



David Lasagabaster

David Lasagabasterrek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak eta gertakarien agenda www.euskadi.net/hizkunea web gunean irakur ditzakezue.

Argitalpenak



Do not Leave Your Language Alone
J.A. Fishman

Azterlana

Encyclopedia of the worlds endangered languages
C. Moseley



Xiberotarra Zuberera.
Le dialecte basque souletin
Jean-Baptiste Coqos

500 enpresak adierazi dute **LanHitz** egitasmoan parte hartzeko interesa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006ko irailean jarri zuen abian LanHitz foru aldundiekin, EUDELeKin eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan Sailekin. 2007ko amaieran 500 enpresa baino gehiago ziren LanHitz egitasmoan parte hartzeko interesa agertu zutenak.

Hiru irizpide hartu zituen HPSk enpresaz enpresa harremanetan hasi aurretik: elebidun kopurua %45etik gorakoa duten gune soziolinguistikoetan kokatuta egotea enpresak, 15 langile baino gehiagoko enpresak izatea eta eskaera espresuki egin izana. Irizpideok betetzen dituzten enpresak 1.929 dira. HPS 2007ko amaieran enpresa horietara heldu da eta horietatik 500 baino gehiagok egitasmoan parte hartzeko goia adierazi dute.

Esparru sozio-ekonomikoan euskara sustatzea lehentasunezkoztat du HPSk eta *LanHitz* du ardatz. 2007an 2.300.000 euro banatu ditu Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera-planen diseinua, garapena eta kudeaketa diruz laguntzeko.

Aurrera begirako erronkak hauexek dira:

- Herri-administrazioen arteko elkarlana bideratzen eta koordinatzen jarraitzea, mundu sozio-ekonomikoko eragile nagusiekin, enpresaburuen elkarteekin eta sindikatuarekin lankidetzan.
- Sustapen- eta sentsibilizazio-lan sistematizatuarekin jarraitzea. Honako bi irizpide hauek hartuko dira aintzat: gune soziolinguistiko gehiagotara hedatzea, eta, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Legearekin lotuta, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko atala garatzen duen dekretuan jasotako sektore estrategikoak lehentasunezkoztat jotzea.
- Laguntza tekniko eta ekonomikoekin jarraitzea.



Euskara sustatu eta bizkaiera normalizatzeko hitzarmena izenpetu dute Eusko Jaurlaritzak eta Labayru Ikastegiak



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Labayru Ikastegiarekin 2004. urtetik zuten lankidetzahitzarmena berriro dute. Labayruk euskara sustatzen eta bizkaiera normalizatzen egiten duen lanean aurrera egin dezan 263.068 euroko dirulaguntza jasoko du 2007an bi erakundeon eskutik; 179.000 euro jasoko ditu HPSren eskutik eta 84.068 euro Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. Lexikografia, bizkaiera literarioa, herri-literatura, Bizkaiko leku-izen eta deituren corpusa, *Idatz & Mintz* literatura aldizkaria eta beste zenbait proiektu garatu ahal izatea da hitzarmenaren helburua. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak adierazi zuenez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasota dago «euskara batuaren eta euskalkien artean zubiak egitea» eta esparru horretan Labayruk lan eskergea egin duela azpimarratu zuen. Hori dela eta, «ezinbestekoa, bultzatu beharrekoa eta benetan eredugarria» da Labayru Ikastegiak bizkaiera sustatzeko egiten duen lana.

Bizkaiko Foru Aldundiko, HPSko eta Labayruko ordezkariak.

Mintzalaguna egitasmoa indartzeko hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak

Euskararen erabilera areagotzea da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren jardunaren ildo garrantzitsua eta horretarako, hizkuntzaren erabilera soziala bultzatzeko lankidetzak ugari bideratzen ari da erakunde eta elkarteekin. Azkena, Topagunearekin sinatutako lankidetzak hitzarmena izan da.

Euskal hiztunak eta hitz egiteko trebeziarik eta erraztasunik ez dutenak batzen dituen

Mintzalaguna programa sendotzea eta zabaltzea da hitzarmen horren helburua. Patxi Baztarrika HPSko buruaren esanetan, egitasmo horrek bete-betean erantzuten dio Sailburuordetzaren ildo garrantzitsuenari. *Mintzalagunaren* oinarria bi hitzetan laburbildu du sailburuordeak: erabilera eta elkarlana. «Erabilera, konbentziturik gaudelako erabilera dela edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria» eta elkarlana, «euskarak guztion ahalegina eta guztion ahaleginak norabide berean batzea ezinbestekoa baitu aurrera egingo badu». Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 72.776 euro jarriko ditu hitzarmen hori garatzeko.



HPSko eta Topaguneko ordezkariak hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzak eta ONCEk literatur lanak egokituko dituzte itsuentzak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta ONCEk (Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalak) lankidetzahitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren helburua, ikusmen urritasuna dutenei euskarazko liburuak eta edukiak eskura jartzea da, herritar horien hizkuntza-eskubideak bermatze aldera. Horretarako 75 literatur lan Braille sistemara transkribatu eta euskarri digitalean, Daisy sisteman, grabatuko dituzte. Horrez gain, pertsona itsuentzat egokitutako euskara-gaztelania hiztegi elektronikoa garatuko du ONCEk. Ikusmen urriko herritarrek materiala berehala eskuratu ahal izateko mailegu-sistema ere bultzatuko da. Akordio hau gauzatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, 70.000 euro jarriko ditu, hau da, kopuru osoaren %65a. Gainontzekoa ONCEk jarriko du.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 • www.euskara.euskadi.net

